La mayor parte de su vida no comió más que leche y maiz, y á quien como él labró sin descanso la tierra, no creo—dice Iztueta,—debe exigirsele más vigor y empuje en sus músculos.

De buena gana recibirían una pequeña parte de tan hermosa savia esos *espormanes* que vemos en el día, alimentados con delicados y abundantes *menús*, y cuyos estómagos quebrantados por pirosis crónicas y demás desperfectos del gastro, no son capaces de digerir comidas sanas, ó menos adulteradas.

FRANCISCO LÓPEZ ALÉN

# ZAZPIAK BAT

## *Dona-paleoko eskual bestetan bertsularien guduan irurgarren garait saria ereman duen kantua*

Kabi polita leku onean
Arkitutzen dan moduan,
Ala berean azaldutzen da
Euskal-erria munduan;
*Zazpi umecho* egatzen diran
Bezela kari onduan,
Pipirripiak eginaz pozez
Beren izkera gozuan,
Modu berean zazpi senide
Gabiltz pozkida osuan.

Zazpi anayak biyotzetikan
Maitatu bearrak gera,
Azaldutzeko *lege zar* eta
Oitura onak aurrera;
¡Gure izkuntzik ez da galduko
Gu sayatutzen bagera!
Baizik gero ta indar obean
Argituko da euskera,
Doatsunezko eta gozozko
Pare gabeko izkera

Gu lau senide Españatarrak
Gera beti euskarekin,
Frantziatarrak zubek irurak
Beti zerate gurekin;
Bide zuzen ta jatorrezkoai
Bear diogu bai ekin,
Kopet argiya, musua alaya
Degula beti gurekin,
¡Mundua mundu dan bitdrtean,
Izan gaite alkarrekin!

Magal bat degu guziak,
Lur ontakuak *Denak bat* gera
Nain Españi naiz Frantziak;
Ama euskarak dianak gaitu
Begi onez ikusiak,
Bere bular ta zuno gozoak
Beti dauzka irikiak,
Ase ditzagun maitasunezko
Gure bioz egarriak.

Euskal erriko kabi ontatik
Irten dira *Ama* gana,
Seme jakintsu oso pizkorrak
Laguntzera beragana;
Beti argitan izango dira
Oyek egindako lana;
¿Nor ez dakizki bere izenak?
*¿Bilinch, Manterola* jauna,
*Iparragirre, Belzunze, Abbadie,*
Ta *Duvosin* kapitana?

Gizonak izan gaitean,
*Zazpi probintzi* euskaldun onak
Elkarturikan batean;
Lege zar eta euskal izkera
Degula borondatean,
Geren biotzak Jaunaren gana
Jarririk fedez betean,
Itsaso, mendi, zelai ta lurrak,
Munduan diran artean

JOSÉ ARTOLA ETA ELIZECHEA.